



Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

MEMORIA

2015



KONFEKOOP



EUSKOOP

KONFEKOOP

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA	7
SARRERA	13
1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK.....	17
1.1. ERKIDE – EUSKADIKO LAN-ELKARTE, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	17
1.2. ENKF - EUSKADIKO NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	20
1.3. EKKF - EUSKADIKO KONTSUMO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA	22
1.4. EGKF - EUSKADIKO GARRAIOLARIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA.....	23
2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN.....	24
EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA	24
3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK	26
3.1. ELKAR-LAN, KOOP. E. – KOOPERATIBAK SUSTATZEKO SOZIJETATEA	26
3.2. OINARRI EBS – ELKARREN BERMERAKO SOZIJETATEA.....	26
4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK.....	28
4.1. EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA.....	28
4.2. NAK - NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA.....	28
4.3. EGES - EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN SAREA	29
5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK.....	30
5.1. EGK - EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA	30
5.2. GZEK – GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA	32
5.3. ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA.....	34
5.4. GEK – GIZARTERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA	35
5.5. ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA	35
5.6. FEK – FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUA	35
5.7. OSALAN – LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA	36
5.8. KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA	37
5.9. EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA	37
5.10. EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA.....	38
6. KOMUNIKAZIOA	40
6.1. WEBGUNEA: WWW.KONFEKOOP.COOP.....	40
6.2. FOROKOOP – KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA	40
6.3. “KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN	41
6.4. BESTE HAINBAT HEDABIDE.....	41

7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK	42
7.1. EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA.....	42
7.2. JARDUERAK EUSKARAREN ESPARRUAN	42
7.3. KNE - KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA.....	43
7.4. GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA.....	44
7.5. INNOBASQUE.....	44
8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK.....	45
8.1. GARLAN, KOOP.E.	45
8.2. ALECOP, KOOP.E.	45
8.3. EUSKALTEL.....	45
8.4. IMQ – IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO.....	45
8.5. PARTE-HARTZEA HAINBAT EKITALDITAN	45
8.6. LANKIDETZA MUNDUKIDEREKIN	47
IKUSKATUTAKO KONTUAK	49



KONFEKOOP



EUSKOOP

KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOAK ETA KOOPERATIBEN ERROLDA



KONFEKOOP

GIZARTE ORGANOA

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

2015.12.31n

PRESIDENTEA:

Rosa Lavín Ibarra

ERKIDE

PRESIDENTEORDEA:

Patxi Olabarria Furundarena

ERKIDE

IDAZKARIA:

Pablo Durana Duque

ENKF

KONTSEILARIAK:

Eduardo Fernandez Bodegas

ERKIDE

Elena Gabilondo Mugarza

ERKIDE

Mikel Larrea Azpeitia

ERKIDE

Iñaki Peña Gómez

ERKIDE

Iñigo Querejeta Merino

ERKIDE

Jon Andoni Ruiz de Zarate Agirrezabalaga

ERKIDE

Juan Bautista Jauregi Iztueta

ENKF

Martin Uriarte Zugazabeitia

ENKF

Gonzalo Saez de Ibarra Mtz. de Estarrona

EGKF

KOOPERATIBEN ERROLDA

2015eko abenduaren 31n, federatutako kooperatibak **1.049** dira; Kooperatiben Erregistroan 1.906 Koop.E. eta 844 Koop.E. Txiki daude:

➤ Kooperatiba motaren arabera:	(Koop. Erreg.)
▪ ..Lan Elkartek	890..... 1.146+844
▪ Irakaskuntza	80..... 96
▪ Nekazaritza.....	64..... 118
▪ Kontsumoa	8..... 36
▪ Garraiolariak.....	6..... 42
▪ Kreditua.....	1..... 1
▪ Etxebizitza 376
▪ Beste batzuk..... 91
➤ Probintziaren arabera:	
▪ Araba	167
▪ Bizkaia	430
▪ Gipuzkoa.....	452
➤ Ekoizpen-sektorearen arabera:	
▪ Lehen sektorea edo zuzeneko produktua.....	12
▪ Bigarren sektorea edo eraldaketa	420
▪ Hirugarren sektorea edo zerbitzuak	617
❖ Bazkideak guztira	1.011.889
➤ Nekazariak.....	9.955
➤ Lan Elkarreetakoak	33.477
➤ Kontsumokoak	907.908
➤ Kreditukoak.....	11.381
➤ Gurasoak	49.168
❖ Langileak guztira.....	51.929
▪ Lan-bazkideak.....	33.477
▪ Bazkide ez diren langileak	18.452
▪ Gizonak.....	24.842
▪ Emakumeak.....	27.030
❖ Fakturazioa	9.012 ₁ €
❖ Nazioartekotzea.....	4.570 ₁ €



1. Lehen sektorea 12	2. Bigarren sektorea.....420	3. Hirugarren sektorea.....617
1.1. Nekazaritza..... 9	2.1. Eraikuntza..... 105	3.1. Merkataritza96
1.2. Basogintza 0	2.2. Energia..... 2	3.2. Aholkularitza62
1.3. Abeltzaintza 3	2.3. Kontsumoko ondasunen fabrikazioa 23	3.3. Hezkuntza eta prestakuntza99
1.4. Meatzaritza 0	2.4. Elikagai-industria 48	3.4. Finantzak1
1.5. Arrantza..... 0	2.5. Arte Grafikoen industria..... 23	3.5. Ostalaritza.....29
	2.6. Artisautza 4	3.6. Informazioa eta komunikazioa ..37
	2.7. Automobilgintza 25	3.7. Informatika eta teknologia37
	2.8. Kautxu eta plastikoaren industria 9	3.8. Instalazioak eta konponketak29
	2.9. Industria elektronikoa 52	3.9. Garbiketa6
	2.10. Zur-industria 17	3.10. Ingurumena eta lorezaintza19
	2.11. Makina-erremintaren industria.. 36	3.11. Aisia eta kultura30
	2.12. Birziklatzearen industria..... 10	3.12. Osasuna eta mendekotasuna27
	2.13. Sidero-metalurgia industria 60	3.13. Aseguruak0
	2.14. Ehungintza..... 6	3.14. Hizkuntza zerbitzuak12
		3.15. Enpresentzako zerbitzuak41
		3.16. Gizarte-arlokoak21
		3.17. Garraioa eta banaketa58
		3.18. Turismoa13



KONFEKOOP



KONFEKOOP

SARRERA

Kontseilari lagun agurgarriak,

Hau da hitz batzuk helaraziko dizkizuedan lehenengo aldia, 2015ean denok elkarrekin egindako lan eta ahaleginaren fruitu den agiri honekin batera doan agur honetan. Nire esku utzi den lan berri honetan, karguaren berezko eskakizunei aurre egiten ari natzaie, zuen ezinbesteko laguntzari esker, eta azken hamazortzi urte hauetako ibilbidean uneoro Gizarte Zerbitzu Integratuen Taldea SSI TALDEA nire kooperatibatik jaso dudan bultzada eta animoa lagun.

Bigarrenik, KONFEKOOPEK Euskadin zein beste erregio eta munduko txokotan Kooperatiben Mugimendua sustatu, zabaldu eta ikusarazteko lanean urtero laguntza ematen duzuen sare, pertsona, Federazio, elkarte eta erakundeei eskerrak eman nahi dizkizuet.

2015 honetan, presidentetzaren ahalegin guztiak ordezkartza-esparru horren barruan garatu dira, gai hauen guztien jiran: Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen aldaketa, berrikuspena eta etengabe aldatzen den errealitatera egokitzeko lanak; Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eta Euskadiko Kooperatiben arteko II. Egitasmo eta Lankidetzaren Hitzarmenaren barruan garatu beharreko ildo nagusien zehaztapena; beste erregio batzuetako elkarte eta erakundeekin egindako lana ETESS Gizarte Ekonomiaren Mugaz gaindiko Eskola bat sortzeko helburuarekin; mugaz gaindiko europar programa baten lanketa; Euskadiko gizarte-ekonomiako erakunde esanguratsuenen topagune izango den EGES Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarearen jendaurreko aurkezpena; hainbat ekitaldi eta forotan izandako parte-hartzea, geure burua ikusarazteko, betiere gure balioak eta printzipioak indartzeko, gure nortasunaren ikur nagusiak direlako eta gaur egungo egoera ekonomiko eta sozialera etengabe egokitzeko beharrezkoak direlako, berrikuntza eta berehalakotasuna gero eta garrantzitsuagoak diren ingurune batean.

Oinarri horiekin, hemen da 2016a, 2015ean egindako bidean aurrera jarraitzeko eta urratsak sendotzeko, entusiasmaz beteta, Euskal Kooperatiben Mugimendua dagokion leku pribilegiatuan egon dadin, egunero hura eraikitzen ari garenon arrakasta-eredua izan dadin, hala enpresen esparruan nola arlo pertsonalean.

Eskerrik asko bihotzez denoi,

ROSA LAVÍN IBARRA
KONFEKOOPEKO PRESIDENTEA

SARRERA

2016an berreskurapen ekonomikoa gertatu da, BPGd-ak gora egin du eta enplegua sortu da Euskadin zein estatu osoan. Estatuan BPGd-ak % 3,2 egin du gora 2014arekin alderatuta, eta 678.200 langabe gutxiago egon dira, langabezia-tasa % 20,9raino jaitsiz.

Euskadin, aldiz, BPGd-a % 3,1 hazi da, eta enpleguaren alorrean, 19.200 langile gehiago erregistratu dira. Horrenbestez, langabezia-tasa % 12,9koa izan da, estatukoa baino zortzi puntu txikiagoa.

Ekonomiak izan duen bultzada honen atzean hainbat arrazoi daude: petrolioaren prezioaren jaitsiera, inflazio-tasa oso baxua, esportazioari on egin dion euroaren ahuldadea dolarraren aldean eta EBZk bonuen erosketaren eta interes-tasak ia ehuneko zeroan mantentzearen bidez sartu duen likidezia.

Industria-jarduerak eta esportazioek bilakaera ona izan dute, eta hori oso garrantzitsua da Euskadik bizi duen berreskurapena eten ez dadin. Turismoak eta eraikuntzak euskal BPGd-ari egiten dioten ekarpena estatuan baino txikiagoa da. Hain zuzen ere, hau da sektoreen araberako ekarpena Euskadin: % 69 zerbitzuen sektoreak, % 24 industriak, % 6 eraikuntzak eta % 1 lehen sektoreak.

Testuinguru horren barruan garatu da euskal kooperatiben jarduera sozioekonomikoa, eta nabarmendu behar da 2015ean hazkundera bizi izan dutela hala kooperatiba berrien kopuruan nola enpleguan.

KONFEKOOP - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak egin duen lanak ordezkari-tza instituzionala izan du ardatz, eta bere ahotsa bere presentzia duten ordezkari-tza instituzionaleko organismo guztietara eraman du. 2015ak pisu berezia izan du arlo honetan, denbora eta ahalegin ugari inbertitu behar izan direlako indarrean dagoen Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzeko prozesuan. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak lege horren aurreproiektuari buruzko aurretiko txostena egiteko eskatu die KONFEKOOPi, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari. Aurreikuspenen arabera, 2016an Jaurlaritzak lege-proiektua onartuko du eta Eusko Legebiltzarrerara bidaliko du, tramitazioa abiarazteko.

KONFEKOOPEN 2015eko Memoria honetan programa eta jarduera ugariaren xehetasun guztiak jaso dira, eta espero dugu KONFEKOOP osatzen duten Euskadiko kooperatiben hiru federazio sektorialeak ontzat jotzea.

-
- 1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK**
 - 2. EGITASMO ETA LANKIDETZA-HITZARMENA BERRESKURATZEA**
 - 3. LEGEGINTZA ETA ARAUGINTZA PROZESUAK**
 - 4. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
 - 5. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK**
 - 6. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK**
 - 7. KOMUNIKAZIOA**
 - 8. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK**
 - 9. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK**
-

1. BAZKIDE DIREN FEDERAZIOAK

1.1. ERKIDE – EUSKADIKO LAN-ELKARTE, IRAKASKUNTZA, KONTSUMO ETA KREDITU KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

2015ean, Erkidek jarduera ugari garatu ditu, eta atal honetan lan horien guztien laburpena jaso dugu, jarduera-ildotan banatuta.

A. Enpresa-esparrua

- Lankidetzak OINARRIekin, federatutako kooperatiben finantzaketa-baldintzak hobetuko dituen programa bat garatzeko. ERKIDEx 1.362.000 euro inbertitu ditu orain arte helburu horrekin, eta 2015ean, 34 kooperatibak erabili dute aipatu programa.
- ERKIDEx bazkide egin ziren Kooperatibak OINARRIren “bazkide partaide” gisa alta emateko kostua bere gain hartu du, haren zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- SAIOLANen parte-hartze handia izan du, bazkide akziodun den heinean. SAIOLANek 15 enpresa-jarduera berri sortu ditu, horietako 5 martxan zeuden kooperatiben negozio-ildo berriak, eta 40 bideragarritasun-azterketa prestatu ditu.
- Finantza-erakundeekin (LABORAL KUTXAREKIN eta Nafarroako Rural Kutxarekin) sinaturiko lehentasunezko lankidetzak-hitzarmenak kudeatu ditu.
- Ekonomia eta finantzak kudeatzeko eredu erraztu bat ezartzeko programaren garapena; 14 kooperatibatan martxan jarri da.
- Kostuak kalkulatu eta kontrolatzeko metodo bat ezartzeko programa aurrera eraman du 95 kooperatibatan.
- Kooperatiben ereduaren abantailei buruzko jardunaldi bat, 224 pertsonaren parte-hartzearekin, 2015eko Batzar Nagusiaren barruan.
- Federatutako kooperatiben arteko merkataritza-trukeen atariaren kudeaketa. MerkaERKIDE izeneko atari horretan 356 kooperatibak haien produktu eta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta 498 enpresa erosle homologatuta daude.
- Lankidetzak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduan, MUREKIN txandakatuz.
- SEED CAPITAL BIZKAIA eta HAZIBIDE arrisku-kapitaleko sozietateetan parte hartu du.
- BATERATZEN (pertsonak eta kooperatiben beharrian estrategikoak lerrokatuz) programa garatu du 21 kooperatibatan.

B. Prestakuntza

- Kooperatiba-enpresen Kudeaketarako masterra. 26 zuzendarik hartu zuten parte.
- Bazkide langileentzako 2 ikastaro, kooperatiben arloko prestakuntza jasotzeko. 96 bazkide-langilek hartu zuten parte.
- Artezkaritza Kontseiluko kideentzako 2 prestakuntza-ikastaro. 79 kontseilarik hartu zuten parte.
- Sozietateen zergaren prestaketari buruzko jardunaldi praktiko bat. Kooperatibetako finantza-arloetako 77 arduradunek parte hartu zuten.
- Krisi garaian kostuak murrizteari buruzko jardunaldia, finantza-arloko 16 arduradunen parte-hartzearekin.
- Ideiak babesteari buruzko jardunaldiak (patenteak, markak eta izen komertzialak). 16 zuzendarik parte hartu zuten.
- Publiko aurrean eraginkortasunez hitz egiteko moduari buruzko 2 jardunaldi, 27 zuzendariren parte-hartzearekin.
- Euskarri informatikoak erabiltzeko prestakuntza-ikastaroa. 115 bazkide langilek parte hartu zuten.

C. Informazioa

- ERKIDek 38 zirkular igorri dizkie federatutako kooperatibei.
- Teknikariek federatutako 32 kooperatiba bisitatu dituzte, haien kezak bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin.

D. Kooperatiben sustapena

- 143 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu duen ELKAR-LANI laguntza handia eman dio.
- Federazioaren irudia sendotzeko, kanpaina zabala garatu du hedabideen aurrean, batez ere irratian.
- 11.500 pertsonaren artean banatzen den KOOP-Euskal Enpresa Kooperatiboa aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditu.
- Marketin online kanpaina bat burutu du, batez ere Erkideren webgunearen bidez. Guztira, 296.914 orrialde bisitatu dituzten 37.523 bisitari izan ditu.
- Mailegu pertsonalen arloan, euskal kreditu-kooperatibekin hitzarmena sinatu du. 37 bazkide-langilek erabili dute hitzarmen hori.
- LABORAL KUTXAREKIN, SPRIrekin eta MICHELINEKIN lankidetzan, Arabako Enpresa solidarioarentzako XIV. Urrezko Dato saria antolatu du. BTI (BIOTECHNOLOGY INSTITUTE) izan zen irabazlea.
- Kooperatibismoa sustatzeko kanpaina 40 ikastetxetan.

- Erkideren 2015eko Gizarte Balantzea prestatu du.
- “Bide Batez” europar programan parte hartu du, BFArekin, Bilboko Udalarekin, CEBEKekin eta gizarteratze-arloan lan egiten duten erakundeekin (hala nola, PEÑASCAL, GAZTAROA, AGINTZA eta CARITASEkin) elkarlanean.

E. Zerbitzuak

- 1.127 kasuren inguruko kontsultak jaso ditu edo aholkularitza eskaini du.
- Merkataritza-informazioko eta kredituko zerbitzuak 22 txosten laga ditu.
- ERKIDERen bazkide diren Kooperatiben Aholkularitzekin lankidetzeta-hitzarmena kudeatu du. Aholkularitza horiek 8 kooperatiba eratzeko laguntza eman dute.
- Gizarte Segurantzaren Cret@ sistemari buruzko mintegi bat egin du. Kooperatibetako 76 arduradunek parte hartu zuten.
- Ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-maileguei buruzko ERKIDERen eta LABORAL KUTXAREN arteko hitzarmenaren onurak baliatu dituzte 8 bazkide langilek.
- “Nola negoziatu bidean hil gabe” izeneko tailerra egin zen, 42 pertsonaren parte-hartzearekin.
- Estatutu sozialak edo barne-araudia idatzi edo aldatzeko laguntza eskaini die 11 kooperatibari.
- Zuzendarien Datu-basean 872 zuzendari daude.
- Kooperatibak eta Gizarte Segurantzaren arteko harremanari buruzko jardunaldi bat antolatu zuen. 65 zuzendarik parte hartu zuten.
- ELKAR-EUSKARA hizkuntza-arloko laguntza-zerbitzua handitu du, eta dagoeneko 98 dira federatutako kooperatiba parte-hartzaileak.
- Lan-baldintzak eta prebentzioa hobetzeko prestakuntza-kanpaina bat garatu du, 94 kooperatibistarengana iritsi dena.
- Kultura prebentiboaren hastapenei buruzko tailer bat egin du, 17 zuzendariren parte-hartzearekin.

F. Federazioen errolda

- 2015eko ekitaldian, 51 kooperatibaren hazkunde garbia eman da (145 Kooperatibaren alta eta 94 Kooperatibaren baja).

G. Irakaskuntzako kooperatiben elkarte sektoriala

- Pertsonen Kudeaketaren inguruko bi ikastaro egin ditu: “Aitorpenari buruzko gakoak” 30 pertsonaren parte-hartzearekin, eta “Motibazioa” 28rekin.
- “Elkarrekin bizitzen ikasi: Kooperatiba taldeak” izeneko proiektua garatu du, eta 10 zentrok parte hartu dute. Bestalde, proiektuari zabalpena emateko helburuz,

maiatzaren 15ean, proiektua ezagutzera emateko jardunaldi bat egin zen HUHEZiren egoitzan, 92 parte-hartzaile baino gehiagorekin.

- Barne-araudia ezartzeko beharrezkoa den aholkularitza-lana eskaini zuen Irakaskuntzako 2 kooperatibatan.
- “Zuzenbidea Irakaskuntzako Zentro Kooperatiboetan” gaiari buruzko lansaio bat egin du, 50 lagunen parte-hartzearekin.
- “Irakaskuntzako Kooperatibetako Artezkaritza Kontseiluentzako prestakuntza” izeneko jardunaldia egin zuen, eta 16 pertsonak parte hartu zuten.
- “Sozietate-lanaren ondoriozko betebeharrak administratiboak” izeneko jardunaldia antolatu zuen, 52 pertsonaren parte-hartzearekin.

H. Kontsumo kooperatiben elkarte sektoriala

Desegin den EKKF, Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa osatzen zuten 8 Kontsumo Kooperatibak ERKIDERen barruan sartu dira.

1.2. ENKF - EUSKADIKO NEKAZARITZA-ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

A. Ordezkaritza instituzionala

ENKFK erronka honi eutsi dio, eta nekazaritza-elikagaien sektorearen garapenean parte-hartzeak ematen dion eragina erabili du eragile politiko, ekonomiko, sozial eta sindikalekin. Kooperatiben mugimenduarekin lotutako erakundeetan parte hartzeaz gain, ENKFK ordezkaritza izan du ondoko beste erakunde hauetan:

- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza batzordea.
- Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Mahaia
- HAZILUR, Enpresak sustatzeko sozietatea
- Euskadiko Elikaduraren Klusterra
- INNOBASQUE – Berrikuntzaren Euskal Agentzia
- Nazioarteko Nekazaritza Foroa
- OINARRI EBS
- HAZI
- ELIKA

Halaber, sektoreko kooperatiben interesak ordezkatu, babestu edota aldarrikatzeko harremanak izan ditu instituzioekin (Jaurlaritza, Legebiltzarra eta Aldundiekin).

E. Zerbitzuak

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZU MANKOMUNATUA. Kooperatiben jarduera eta, maila guztietan, laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea da bere xedea. Horretarako, aholkularitza-lana egiten du, eta ingurune seguru eta osasungarrian lan-baldintza egokiak

ezarri eta mantentzeko neurriak sustatzen ditu. 39 kooperatibak parte hartzen dute zerbitzuan (22 Araban, 10 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan).

AHOLKULARITZA ZERBITZUA. Kooperatiben garapena bultzatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu (kudeaketa, kalitatea, ingurumena, elikagaien segurtasuna, EGE), merkatuaren eskakizunetara egokituko den enpresa eta kooperatiba-eredu bat ahalbidetzeko. 2015ean, 7 proiektu garatu dira aholkularitzaren esparruan.

ZERBITZU JURIDIKOA. Kooperatibek legearen eskakizunak betetzeko laguntza ematea izan da zerbitzu honen xedea. Hain zuzen ere, lan hauek egin dira: Artekari Kontseilu eta Batzarretan letradu aholkulariaren figura eskaintzea; erregistroko izen-emateak egitea, Estatutuak aldatu eta egokitzea, hitzarmen eta kontratuak idaztea, arbitraje eta kontziliazioetan laguntzea, sozietateak eratu, eraldatu eta bat egitea; txosten juridikoak prestatu eta kontsultak erantzutea; datuak babestea; ikuskaritzetan laguntza ematea; marka eta mota guztietako baliabideak eskuratu eta legeztatzea.

KOOPERATIBISMOA SUSTATZEKO ZERBITZUA. Nekazaritza-elikagaien sektorean kooperatibismoa sustatzea da bere helburu nagusia. Horretarako, bat egiteko, sinergieztatzeko eta kooperatiben arteko ikasketak sustatzeko guneak sortzeaz arduratzen da. Horrekin guztiarekin, Kooperatiben gaineko irudi positiboa zabaltzen du gizartean eta interes-taldeen artean.

C. Prestakuntza eta Sustapena

- 2014ko Zerga-itxierari eta zerga-arloko nobedadeei buruzko ikastaroa. 23 parte-hartzaile
- Markei buruzko jardunaldia. 13 parte-hartzaile
- Sozietate-zergari buruzko jardunaldia. 19 parte-hartzaile
- Nekazaritzako elikagaien enpresaren esparruko marketin digitalari eta berrikuntzari buruzko jardunaldia. 45 parte-hartzaile
- Artekari Kontseiluarentzako Senior aholkularitza 5 kooperatibatan.
- Prestakuntza sozial eta enpresarialari buruzko ikastaroa. 23 parte-hartzaile
- Elikagaien industriaren esparruko efizientzia energetikoari buruzko jardunaldia. 6 parte-hartzaile
- iPhonea produktibitate profesionalerako erabiltzeari buruzko jardunaldia. 17 parte-hartzaile
- Lankidetzaz HAZIREKIN ardo-ustategien kudeaketa ekonomikoari buruzko ikastaroa emateko.

- Elkar-lankidetzarako topaketak Aizón-Campo de Borjan (upategi kooperatiboa) eta Palentzian (zerealaren kooperatiboak)
- Bidaia teknikoa Portugalera, 42 parte-hartzailerekin.

D. Behatoki sozioekonomikoa

Aldian behingo inkestak federatutako kooperatiben artean, sozietatearen eta ekonomiaren inguruko informazioa biltzeko.

E. Informazioa

Kooperatibei zein zenbait interes-talderi hainbat gairi buruzko informazioa eskaini zaie aldian behin: kooperatiben eta zerga-arloko legeria, ingurumena, elikagaien segurtasuna, diru-laguntzak, prezioak, nekazaritzako elikagaien eta landa-eremuen inguruko albisteen prentsa-laburpenak, etab.

1.3. EKKF - EUSKADIKO KONTSUMO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

A. EKKFren likidazioa eta ERKIDE-Kontsumoren sorrera

2015a itxiera eta eraldaketa urtea izan da Federazioarentzat. Hainbat hilabetez hausnartu ondoren, uztailan, EKKFren bazkide ziren kooperatibek ERKIDEN sartzea erabaki zuten. Horretarako, kontsumoko talde sektorial bat osatu zuten, kontsumoko kooperatibismoa laguntzeko eta garatzeko lanean aurrera egin ahal izateko. ERKIDE-Kontsumok zerbitzuen sorta zabalagoa eta laguntza tekniko handiagoa eskainiko du.

Erabaki horren ondorioz, EKKFren likidazioa burutu da, eta amaiera eman zaio kontsumo-arloko kooperatibismoarentzat oso arrakastatsua izan den garai bati. 1988an eratu zenetik, Federazioari eusteko eta indartzeko laguntza eman duten kooperatiba eta pertsona guztiei bere esker ona eskertuz agurtu zen.

B. Ordezkaritza instituzionala

Honako konfederazio hauek ordezkatzen dituzte kontsumo-kooperatibak erakundeetan:

- HISPACOOP, Espainiako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Konfederazioa (presidentetza)
- EUROCOOP, Europako Kontsumoko Kooperatiben Konfederazioa

Eta kontsumitzaileen interesekin lotuta, honako hauetan parte hartu du:

- KONTSUMOBIDE, Kontsumoko Euskal Institutua
- CCU, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Batzordea, estatukoa (presidenteordetza)
- EGK, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua
- AECOSAN eta NAOS Estrategia sariak
- Elektrizitatearen Aholku Batzordea

- Europako Kontsumoaren Goi-bilera
- Elikagai Katearen Behatokia

C. Kontsumoko kooperatibismoaren sustapena

Elikagaien arlokoak ez diren sektore ekonomikoak izan ditu ardatz:

- Laguntzaren esparruko kooperatibentzako jardunaldia
- Beste kontsumo-kooperatiba batzuk Federazioan lehenik eta talde sektorialean ondoren sartzeko lanak egin dira (elektrizitatea, kontsumo ekologikoa eta laguntza-arlokoak)

D. Garapen kontsumerista

Batez ere elikaduraren alderdia garatu da, EKKFren gaur egungo kooperatiben ardatz nagusia hori baita:

- Elikadurari buruzko informazio-programak
- Bizitza osasuntsuari buruzko ohiturak zabaltzeko programaren inguruko online inkesta
- Ontzien eta bilgarrien programaren ondorioei buruzko txostena
- Kontsumitzaile zaugarrientzako jokoari buruzko gomendioen eskuliburu digitala

1.4. EGKF - EUSKADIKO GARRAIOLARIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

EGKf, Euskadiko Garraiolarien kooperatibismoaren berezko eginkizunak betetzeko, honako erakundeetan parte hartu du:

- Araba, Bizkai eta Gipuzkoako garraiolarien elkarteetan; garraio-politikan jarraitu beharreko eredu eta proposamenak helarazi ditu, kooperatibentzat positiboak izan daitezten.
- Eusko Jaurlaritzaren garraio-mahaian; Eusko Jaurlaritzaren erabaki eta akordioetan kooperatiben alde eragiteko helburuarekin.
- Bilboko Portuaren Lehiakortasunaren Mahaian; Bilboko Portuan lanerako eskubidea eta baldintza egokiak defendatzeko.
- Arabako garraiolarien arbitraje-batzarrean; sektoreko kooperatiben eta bere bazkideen defentsan, kontsumitzaileen aurrean.

435 bazkide garraiolari dituzten 6 kooperatiba elkartzen dituen EGKf gidariak birziklatzeko prestakuntza-ikastaroak (CAP) eta aspaldiko langileentzako garraiolari tituluak kudeatu ditu. Gainera, zenbait produktu elkarrekin erosteko bidea landu du, hala nola gasolioa, gurpilak, olioak eta labaingarriak, aseguruak eta telefono-zerbitzuak.

2. EGITASMO ETA LANKIDETZA HITZARMENA EUSKO JAURLARITZAREKIN

2015ean, Euskal Kooperatiben Mugimenduak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak ordezkaturak, eta Eusko Jaurlaritzak 2014ko uztailaren 9an sinatu zuten II. Egitasmo eta lankidetzaren hitzarmena bideratzeko lanak egin dira. Alde bakoitzaren ordezkariak eta haien ordezkariak izendatu ondoren, I. Egitasmoaren Akordioaren Memoriaren birpasa egin zen, II. Akordio honen testuingurua ezagutzeko asmoz.

Ondoko jarduera-esparru hauek aintzat hartzen ditu hitzarturiko lankidetzaren esparruak:

1. EKMren ordezkariak instituzionalak Euskadiko ekonomia eta gizarte-arloko kontsulta eta erabakitze-esparruetan.
2. Euskadin kooperatiba berriak eta kooperatibetako enplegua sustatzeko bultzada
3. Euskal Kooperatiben arteko elkar-lankidetzaren bultzatzea
4. EKM sustatzeko martxan diren finantza-tresnak indartzea.
5. Pertsonen garapena eta trebakuntza, prestakuntza iraunkorraren bidez
6. Kooperatibismoaren hedapena eta ezagutza
7. Kooperatiben kulturaren eta Gobernu Onaren kodeen garapena, gizarte-kohesioa sortzeko helburuz
8. EKGKren sendotzea

Gai hauek garatzeko eta lana errazteko helburuz, 3 lantalde misto eratu dira:

- Ordezkaritza Instituzionalaren taldea (1)
- Kooperatibismoa bultzatzeko eta indartzeko taldea (2, 3, 4, 5)
- Kultura kooperatiboa eta EKGK jendarteratzeko taldea (6, 7, 8)

EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN ERREFORMA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailak Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/93 Legea erreformatzeko proposamen bat aurkezteko asmotan aritu da lanean.

Eusko Jaurlaritzarentzat Euskadiko Kooperatiben 4/93 legea aldatuz joan diren lege-testu desberdinak bateratzea da arautze horren helburua nagusia, indarreko araudia sistematizatzeko eta errazago identifikatu eta erabiltzeko. Horrez gain, zenbait alderditan harmonizazio eta berrikuntza-lana egin nahi du, hala nola ikuskapenari, etxebizitzaren kooperatibismoari edo garraiolariari dagozkien eremuetan.



KONFEKOOP

KONFEKOOPEK laguntza eman dio Eusko Jaurlaritzari legea aldatzeko prozesuan, eta azken hiletan, lan handia egin du horren inguruan. 2016an, gauza garrantzitsu asko egin beharko dira gai honen inguruan.

3. ELKAR-LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

Euskal Kooperatiben Mugimenduak Euskadin kooperatiba-enpresa berriak sustatzeko eta euskal kooperatiben finantza-arloa indartzeko bi erakunde estrategikotan parte hartu du.

3.1. ELKAR-LAN, KOOP. E. – KOOPERATIBAK SUSTATZEKO SOZINETATEA

Oinarri demokratikoa daukan eta bazkideak elkarrekin inplikatzeko asmoz pertsonen enpresa bat sortu nahi duten ekintzaileentzako gida eta erreferentea da gaur egun ELKAR-LAN. Euskadin sortu diren enpresa-proiektu berrien sustatzaile guztiei arreta eskaintzeko lanak egin ditu.

2015ean, ELKAR-LANek, eskainitako zerbitzuen bidez, 143 kooperatiba eratzeko prozesuan parte hartu du, aurreko ekitaldian baino 5 kooperatiba gehiago. Marka denak hautsi ditu, urte bakarrean eratzen lagundutako kooperatibei dagokionez.

Motaren arabera, kooperatiba gehienak lan elkartukoak izan dira, 137 hain zuzen ere. Horrez gain, 2 etxebizitza-kooperatiba, 2 enpresa-zerbitzuko kooperatiba eta 2 kontsumo-kooperatiba ere sortu dira.

Aurreko ekitaldian eratu ziren kooperatiben jarraipena eta tutoretza ere egin du: haien gizarte-organoen bileretan parte hartu du, egin dituzten kontsultei erantzun die, etab.

Zabalpen-lana ere egin du, kooperatiben ereduaren eta sustatzaileek mahai gainean jar ditzaketen beharrezanetan eredu horrek dituen aplikazioen gaineko ezjakintasuna arinduz.

Eta proiektu baten izaera juridikoaren hautaketa, aholkua eta laguntza ematen duen horren sinesgarritasunean eta eraginean ere oinarrituta dagoen heinean, 144 aholkularitza, 28 tokiko garapen-agentzia, LANBIDEREN bulegoen sarea eta EAEko 28 udal bisitatu ditu.

Eta Kooperatiben Enpresa Ekimenen Behatokiaren X. Txostena prestatu du. EAEn kooperatiba-enpresen sustapena hobetzeko neurriak hartzeko prozesua erraztu beharko dute txostenaren ondorioek.

3.2. OINARRI EBS – ELKARREN BERMERAKO SOZINETATEA

OINARRI EBSk % 15 inguruko kaudimen mailarekin amaitu du 2015a, Espainiako Bankuaren araudi zorrotzak ezarritakoaren oso gainetik.

Abal emate jarduerari dagokionez, OINARRIK 52 milioi sinatu ditu abal berrietan, eta horrela, estatuko bosgarren EBSa da abalen bolumenari begiratuta. Guztira % 20tik gorako tokiko merkatu-kuota dauka.

2015ean beste lorpen garrantzitsu bat izan du; hiru bazkide babesle berri gehitu dira bere Kapital Sozialera: Santander Bankua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Caspeko Abeltzaintza Kooperatiba (Zaragoza). Kide berri horiei esker, hemeretzi dira orain kapital sozialaren parte diren bazkide babesleak. Bazkide horien artean, Gizarte Ekonomia katalan eta euskaldunaren ordezkari diren taldeak, Euskadiko erakunde publikoak (Foru Aldundiak) eta estatuko finantza-erakunde nagusietako batzuk daude.

Ia 3.600 enpresak osatzen dute OINARRIEN sozietate-oinarria (haietako % 75etik gora ETEak eta mikroeteak), eta 250 bazkide berri sartu dira. Partaide guztien artean, 2.100 inguru Gizarte Ekonomiarekin lotuta daude.

2015ean, inbertsioak finantzatzeko finantza-abalek % 38 egin dutela gora nabarmendu behar da. Aitzitik, eragiketak birfinantzatzeko abalek nabarmen egin dute behera. Enpresa-sarea suspertzen ari dela erakusten duten zantzu on eta itxaropentsuak dira bi horiek.

Lortutako formalizazioen datu horrekin, OINARRIK, eratu zenetik, 900 milioi euroko muga gainditu du formalizatutako abaletan. Zenbateko horretatik % 60 baino gehiago krisia hasi zenetik formalizatu da. Datu horrek agerian uzten du OINARRIK azken urteotan emandako finantzaketaren izaera antiziklikoa.

Hala berankortasunak nola huts egindakoek nabarmen moteldu dute haien bilakaera. Huts egindakoak % 0,7 inguruan daude eta berankortasuna, aldiz, % 5,9an, ekitaldia hasi zenetik baino 84 oinarrizko puntu gehiago, baina urtearen erdialdean markatutako % 6tik behera.

Bestalde, hainbat finantza-erakunderekin sinatutako hitzarmenei esker, tartean Finantzen Euskal Institutuarekin, OINARRIEN bazkideek kreditua lehentasunezko baldintzetan eskuratu dezakete, Euriborra gehi % 1etik aurrera hain zuzen ere. Luzaroren bidez egiten den inbertsioaren finantzazioaren kasuan, interes-tasa Euriborra gehi % 0,40koa da. Hortaz, EBSaren abalaren balioa berreskuratzen ari da OINARRI, hala kreditua eskuratzeko nola finantza-baldintzak hobetzeko.

4. LANKIDETZARAKO ERAKUNDEAK

4.1. EKGK – EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

EKGK-k bere 2014-2017 Plan Estrategikoarekin aurrera jarraitu du aurten. Epealdi horretarako erakundearen oinarritzko lan-ildoak zehaztuta daude plan horretan. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Egitasmo eta Lankidetzaren Hitzarmenaren garapenean parte hartu du, KONFEKOOPEkin batera.

BITARTU - Kooperatiben Gatazkak Konpontzeko Euskal Zerbitzuaren bidez, euskal kooperatibetako gatazkak konpontzeko prozedurak administratu ditu. BITARTUK 27 arbitrajetan, 38 adiskidetzetan eta 112 gatazkatan esku hartu du. Gainera, bitartekotzaren modalitatea bultzatu du.

Horrekin batera, EKGK-k nahitaezko 10 txosten jaulki ditu, Eusko Jaurlaritzak igorri dizkion hainbat araudiri buruzkoak. Jaulkitako txostenetako bat Euskadiko Kooperatiben lege-aurreproiektuari buruzkoa izan da.

EKGKren Aholkulari Seniorren taldeak Euskadiko kooperatibei zerbitzua eskaini die aurten berriro, eta gaur egun, lan elkartuko eta irakaskuntzako 8 kooperatibatan lanean ari da.

Kooperatiben azkentzeen arloan, 42 likidazio-espeditetan eta sozietatea eraldatzeko 5 espeditetan parte hartu du EKGK-k.

Kontsulta arrunt bati eta interpretazio eta informazio juridiko orokorrari buruzko 304 kontsulta formali erantzun die.

4.2. NAK - NAZIOARTEKO KOOPERATIBA ALIANTZA

NAKen biltzar orokorra eta batzar nagusia azaroaren 10etik 13ra egin ziren Antalyan, Turkian, NAKek 120 urteko ibilbide historikoa bete zuelarik. Dame Pauline Greenek presidente kargua utzi zuen batzarrean, eta hauteskundeak egin ziren, agintaldia betetzeko falta diren bi urteetan kargua nork hartuko zuen aukeratzeko. Presidentetza Europatik kanpo aterako da lehenengo aldiz, eta Monique Leroux Kanadako kooperatiba eta mutuen ordezkariaren esku geratuko da.

Monique F. Leroux kontseiluko presidentea eta Dejardins taldeko zuzendari exekutiboa izan da (Kanadan lider den finantza-talde kooperatiboa), eta hainbat batzordetan egon da

kooperatiben mugimenduaren barruan: NAK, EACB, CIPB eta, gainera, Quebecoko kooperatiben nazioarteko goi-bileraren sortzailea izan zen.

Batzar horretatik, bestelako gai batzuk ere nabarmendu behar dira, hala nola NAKen estatutuei egin zitzaizkien zenbait aldaketa eta bazkideen kuotak kalkulatzeko erabiltzen diren tarteen aldaketa. 2008an Erromako batzarrean diseinatu zen formularen zenbait gabezia detektatu ziren. Formula horrek bi aldagai hartzen zituen kontuan:

- Ordezkaritzaren biderkatzailea, non banakako bazkideak aintzat hartzen diren
- Biderkatzaile ekonomikoa, non ekonomia nazionalen garapen maila aintzat hartzen den.

Apirilaren 23an eta 24an, EUCC - Cooperatives Europek (NAKen Europako atalak) batzar nagusia egin zuen Parisen. Aldi berean, modu paraleloan, YECN – Europako Kooperatibista Gazteen Sarearen lehenengo topaketa egin zen.

4.3. EGES - EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN SAREA

2015eko martxoan EGES – Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea eratu zen, euskal gizarteko eragile ugariaren parte hartzea izan zuen ekitaldi batean, bide batez, Gizarte Ekonomia ezagutzera emateko erabili zena. Elkargune bat izatea da bere helburua, eta honako erakunde hauek osatzen dute:

ASLE, Euskadiko Lan-elkarteen Taldea

EHLABE, Euskadiko Enpleguko Zentro Berezien elkarte

KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

GIZATEA, Euskadiko Laneratze-enpresen Elkarte

REAS Euskadi, Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarea

EGESen sorreraren abiapuntuan sinesmen partekatu bat dago: eragileen jardun koordinatua hobea dela, Euskal Gizarte Ekonomia sustatu eta garatzearen helburua lortzeko. Azaroan, prentsaurreko bat egin zen, Gizarte Ekonomiaren barruan dauden enpresei eta enpleguei buruzko 2014ko datuen berri eman eta esparru horren garrantzia nabarmentzeko: 3.354 enpresa dira, 9.653 milioi euroko fakturazioa eta 69.820 langile dituztenak. EAeko enplegu guztiaren % 8 inguru da hori, eta, gainera, 1.000.000 pertsona inguru dira gizarte ekonomiako enpresekin lan-harremana ez den sozietate-harremana daukatenak.

Euskadiko Gizarte Ekonomiaren beste erakundeekin harremanak bideratzeko lana egiten ari da (GEEB...).

5. ORDEZKARITZA INSTITUZIONALAK

Euskadiko Kooperatiben ordezkari instituzionala izatea eta Organo Publikoetan haien presentzia instituzionala bultzatzea dira KONFEKOOPEN helburuak.

Lan hori egiteko, kooperatiba-enpresen interesguneekin loturiko ordezkari-tza instituzionaleko erakunde guztietan ordezkari-tza maila gorena lortzeko lan egin behar du KONFEKOOPek, eta espazio guztietan haren ordezkari-tako baten presentzia ziurtatzeko ahalegina egin behar du.

5.1. EGK - EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA

2015ean, aholkulari-tza-arloan lan handia egin da, eta prestatu diren 22 irizpenak dira horren fruitua:

- Euskadiko Fundazioen lege-aurreproiektua.
- Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzu-zorroaren dekretua.
- Prebentzio eta su itzaltze eta salbamendu-zerbitzuak arautuko dituen legearen aurreproiektua.
- EAEko Aurrezki Kutxen eta Banku Fundazioen lege-aurreproiektua.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen duen dekretua.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen araudia onartzeko dekretua
- Euskadiko portuen eta itsasoko garraioaren lege-aurreproiektua.
- Euskal enplegu publikoaren lege-aurreproiektua.
- Enpresek ingurumena babesteko egiten dituzten inbertsioetarako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua.
- Euskadin kirol arloko lanbideetarako sarrerari eta jardunari buruzko lege-aurreproiektua.
- Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren lege-aurreproiektua.
- Euskal sektore publikoaren antolakuntzaren eta funtzionamenduaren lege-aurreproiektua.
- Dopinaren aurkako legeak munduko dopinaren aurkako legetara egokitzeko lege-aurreproiektua
- Euskadiko lanbide-heziketaren lege-aurreproiektua.

- Enpleguko politika aktiboen esparruan zenbait xedapen orokor indargabetzeko dekretuaren aurreproiektua.
- Turismoaren lege-aurreproiektua.
- Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen dekretua.
- Euskal ondare kulturalaren lege-aurreproiektua.
- EAEko diru-laguntzen lege-aurreproiektua.
- Euskadiko Kooperatiben lege-aurreproiektua.
- Euskadin kokatuta dauden osasun-zentro eta zerbitzuetan osasun-laguntza jasotzen duten gaixoen segurtasun-neurriei buruzko irizpena.

EGK-k 2014ko Memoria Sozioekonomikoa prestatu eta argitaratu du. Analisisirako tresna erabilgarri eta baliotsua da, ekitaldiko datu egiaztatuak oinarri hartuta, euskal gizartearen bizitza ekonomiko eta sozialaren erradiografia egiten baitu.

“Enpresa-dinamismoa, aberastasunaren eta enpleguaren sorrera: analisi bat EAetik” izeneko azterketa egin du, bere ekimenez. Lan horrek hainbat aztergai ditu: euskal enpresek aberastasunaren eta enpleguaren sorrerari zein EAEko gizarte-garapenari egiten dioten ekarpena, krisi ekonomikoak aldagai horietan daukan eragina, euskal enpresen jardueraren ingurunea eta klima ("ekosistema"), enpresa-garapen handiagoa eragozten duten mugak eta enpresen dinamismoari eta garapenari lagundu diezaioketen faktoreak eta politikak. Horrez gain, “EAEko gazteen enplegu-aukerak eta lan-merkaturako sarrera, Europako erregioen ikuspegi alderatu batetik” izeneko bigarren lan bat ere jarri du martxan.

2015ean agerraldi ugari izan dira: Ogasun eta Finantza sailburuarena Eusko Jaurlaritzaren 2015eko aurrekontuak aurkezteko; Lanbide Heziketako sailburuordearena Lanbide Heziketaren IV. Euskal Plana aurkezteko; Ingurumen eta Lurralde Politiken saileko Garraio-azpiegituren zuzendariarena Portuen eta Itsas Garraioaren lege-aurreproiektua azaltzeko; Euskadi-Akitania euroeskualdeko AECTren proiektuen kudeatzailearena "Mugaz gaindiko enpleguaren egoerari buruzko euroeskualdeko diagnosi-azterketa eta bere potentzialtasunen analisia" proiektuaren berri emateko; Ingurumen arloko sailburuordearena 2020 Ingurumenaren Programa Markoa aurkezteko; Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeko ordezkariarena "Amiantoa EBtik erauzi" irizpena aurkezteko; Lan eta Enplegu sailburuordearena Enplegu Planaren betearazpenaz informatzeko; EUSTATEN zuzendariarena, Arizmendiarrietaren Lagunen Elkartearen "Enpresa-eredu berriaren ondorioak" aurkezteko; Lan eta Enplegu sailburuordearena Euskadiko Kooperatiben lege-aurreproiektua aurkezteko; Ogasun eta Finantza sailburuarena Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuak aurkezteko; Novia Salcedo Fundazioarena "Pegasus" proiektua aurkezteko.

Eta, amaitzeko, Europako Gaietarako Batzordea sortu dela eta bere kideak izendatu direla aipatu behar da.

5.2. GZEK – GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA

GZEKen jarduera nagusiek honako gai hauekin izan dute zerikusia:

a) Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzu-zorroaren dekretua.

Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzu-zorroa arautzen duen dekretua onartu da. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legeak aurreikusitako gizarte-zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea gauzatzea dakar horrek. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELEK osaturiko Gizarte Zerbitzuen erakunde arteko organoak Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzu-zorroa onartu zuten. Dekretu hori Gizarte Zerbitzuen Legea arau bidez garatzeko ezinbestekoa da. Bertan zehazten dira izaera, xedea, hartzaileak, prestazio edo zerbitzu bakoitza eskuratzeko baldintzak eta kopagoa daukan ala ez.

Dekretu horrekin eta Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren unibertsalizazioarekin, 2016ko abenduaren 26tik aurrera, Euskadik ongizate-estatua finkatzeko urrats garrantzitsu bat emango du, lau zutabe hauetan oinarritu beharko dena: Hezkuntza-sistema, Osasun-sistema, Pentsioen sistema eta Gizarte-zerbitzuen sistema.

Ekainaren 28ko 14/2012 legearen II. Atalean, genero-izaeragatik ez diskriminatzeari eta pertsona transexualen eskubideak onartzeari buruzkoan, transexualitatearen esparruko politika publiko baterako oinarriak jasota daude. Diskriminazio jarreraren aurka hartu eta garatu beharreko neurriak azaltzen dira. Aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuak zehazten dira. Eta, sexua berresleitzeko prozesuak dirauen bitartean, pertsonen administrazio-agiriak edukitzeko aukera jasotzen da.

b) Pertsona Transexuala berresleitzeko prozesu batean dagoela egiaztatzen duten administrazio-agiriak eskuratzeari buruzko dekretua

Ekainaren 28ko 14/2012 legearen II. Atalean, genero-izaeragatik ez diskriminatzeari eta pertsona transexualen eskubideak onartzeari buruzkoan, transexualitatearen esparruko politika publiko baterako oinarriak jasota daude. Diskriminazio jarreraren aurka hartu eta garatu beharreko neurriak azaltzen dira. Aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuak zehazten dira. Eta, sexua berresleitzeko prozesuak dirauen bitartean, pertsonen administrazio-agiriak edukitzeko aukera jasotzen da.

c) Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoa

Gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa legegintzaldi honetan onartzeke dagoen gobernu-plan bakarra da. Honako bloke hauetan egituratzen da:

- Diagnostikoa. Gizarte-baliabideen sarearen gaur egungo egoerari eta bere ibilbide historikoari buruzko informazioa ematen du, eta etorkizunean Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak izango dituen erronka nagusiak jorratzen ditu.
- Xedea, ikuspegia, ildo estrategikoak eta ekintzak. Perspektiba, ardatzak eta helburu estrategikoak ere barne daude, eta 88 ekintza ere zehazten ditu, honako hauekin: lehentasun-mailak, egutegia, ezarpenaren ardura duten eragileak, jarraipena edo ebaluazioa egiteko adierazleak, etab.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Memoria ekonomikoa (dagoeneko onartuak)
- Planaren koordinazioa/dinamizazioa, jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea.

Gizarte Politiken sailburuordearen proposamenez, haren iraupena aldatu da: 2015-2018 izan beharrean, 2016-2019 izango da.

d) Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen dekretua.

Ezgaitasunak dituzten pertsonentzako aparkatzeko txartela jaulkitzeko eta erabiltzeko oinarritzko baldintzak arautzen dituen eta administrazio publiko eskudunei haien arauak bertan aurreikusitako neurrietara egokitzeko urtebeteko epea ematen dien abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretua indarrean sartzearen ondorioz (BOE 2014-12-23) sortu da dekretu hau. Errege Dekretuan onuradunen talde berriak jasotzen dira (ikusmenaren ezgaitasun-maila jakin bateko arazoak dituzten pertsonak), bai eta muturreko larritasun egoeretan dauden pertsonak ere.

EAEEn dagoen Dekretua oinarri hartuta, Errege Dekretuko talde berri horiek eskubidearen titularren artean sartu dira, EJren sail horretatik babestu behar direla uste den beste talde batzuk gehituta:

- Bizi-eginkizunetarako etengabe eta ezinbestean gailu teknikoen mende dauden hiru urtetik beherako pertsonak (gurpildun aulkiak, bereziak, arnasa hartzeko A gailuak) edo haien larritasunagatik kasuan kasuko Foru Aldundiko Balorazio eta Orientazio zerbitzuak 4 edo 5 motatako ezgaitasunen barruan sailkatu dituen pertsonak (patologia larria edo oso larria).
- Mendekotasun egoeran eta mugikortasun murriztua edota ikusmen-urritasuna duten pertsona fisikoen taldea, kasuan kasuko Foru Aldundiaren Balorazioen Zerbitzuak izendatuak.
- Buruko endekapenezko gaixotasunak dituzten pertsonen taldea

e) Hirugarren Sektorearen legea

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren lege berriak egoera ahul edo zaugarrietan dauden pertsonekin esku-hartze sozialaren esparruan lan egiten duten erakundeen estatutua ezarriko du, eta gizarte-politiken arloan egiten duten ekarpenaren garrantzia eta politika horietan parte-hartzeko eskubidea aitortuko du.

Aurreproiektuaren testua hainbat erakunderen iritzia jasotzeko tramitetik pasatu zen: Besteak beste, GZEK, Elkarrizketa Zibilaren Mahaia, EGK, EKGK, GEK, Boluntarioritzaren Euskal Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoa zein Foru Aldundiak, EUDEL eta ARARTEKOA.

Jendaurreko erakustaldiaren tramitea ere bete zen: EHAAn argitaratu zen eta Irekian proposamen bat ireki zen, aurreproiektuaren behin betiko idazketa egiteko ardura daukan lantaldeari herritarren ekarpenak helarazteko helburuarekin.

Hasierako testua jasotako alegazioekin aldatuko da, eta alegazio horiek onartzeko edo atzera botatzeko egon diren arrazoiak berri jasotzeko txosten bat prestatuko da. Kasuan kasuko nahitaezko txostenen ondoren, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseilura bidaliko da, bertan onartu dezaten.

f) EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko Euskal Kontseiluaren IV. urteko txostena

2014. urteko IV. txosten honen edukiak desberdintasun nabarmenak ditu aurrekoekin alderatuta. Inkesten bidez lortutako datuen analisi kuantitatiboa egiten da (Gizarte Zerbitzuak eta Ekintza Sozialaren inkestetatik, orain sailaren organo estatistikoaren kudeaketapean). Azterketa sintetizatu bada ere, datu tradizionalen zenbait serie bertan daude oraindik (EEZ, DSBE edo familia-prestazioak), urte arteko alderaketei jarraipena emateko. Datuen identifikazioa ez da talde zehatzen inguruan egin nahi, baizik eta 12/2008 legearen gizarte-zerbitzuen nukleoaren inguruan: katalogoan aurreikusitako zentroak, programak eta zerbitzuak. Horri guztiari adituek prestatutako hainbat analisi monografiko gehituko zaizkio (21), azken urteotako aditu-taldea ordezkatzeko dutenak. Sistemaren benetako zifrak, beraz, adituen balorazio-iritziekin batera.

5.3. ISEK - INDUSTRIA SEGURTASUNERAKO EUSKAL KONTSEILUA

ISEK interes sozialen eta industria-segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak dituzten sektore nagusien aholku eta parte-hartze organoa da. EAEko industria-segurtasuneko politikaren inguruko prestakuntza, aholkularitza eta jarraipenean parte hartzen du, gai horren inguruko jarduera-planak bultzatuz eta koordinatuz.

2015 osoan ISEKa ez da behin ere bildu.

5.4. GEK – GIZARATERATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

Ez da egon aldaketarik Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Planean (2012-2016) eta GEKa ez da behin ere bildu 2015ean.

5.5. ENK - EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE KONTSEILUA

KONFEKOOPek kooperatiben nazioartekotzeari laguntzeko ohiko jarduerak egin ditu.

2015ean, nazioartekotzearen esparruko euskal enpresen erreferente nagusien eta Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailaren arteko topagunerik ez da deitu ENKn.

5.6. FEK – FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUA

2015eko ekitaldian Dekretu hauek sartu dira indarrean:

- Familien errenta estandarizatzeko sistema, familia-politiken testuinguruan, 154/2012 Dekretuaren aldaketa.
- Ardurapeko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretua.
- Familia eta lana bateratzeko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuaren aldaketa.

Botere publikoek esparru sozial, ekonomiko eta juridikoan familiak babesteko daukaten betebeharrarekin bat datoz dekretu horiek. Babes hori, gainera, ez da zaugarritasun egoeretan oinarritu behar, baizik eta berezkoa izan behar du, familiek gizarte baten etorkizunari egiten dioten ekarpenarengatik (lehenengo sozializazio sarea - belaunaldien txandakatzea).

Horrekin batera, egindako lanetatik -SIIS- zera ondorioztatu dezakegu: euskal sistemaren ezaugarri nagusia, oro har, babes sozialaren arloan daukan gastu murrizta bada, defizita are handiagoa da familiei laguntzeko politiken esparruan. Hortaz, lan hauek egitera behartzen gaitu egoera horrek:

- ✓ Familiei laguntzeko eta jaiotzak bultzatzeko euskal estrategia baten garapena
- ✓ Gurasotasun positiboa, euskal gurasoak hazkuntzan inplikatzeko bilatuz.

Ildo horretatik, inkesta bat egin da hainbat etxetan, baina ondorioak ez dira oraindik aurkeztu.

5.7. OSALAN – LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

OSALANek 2015ean egin dituen jarduerak Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategia 2015-2020 abian jartzeko balio izan dute. Martxan jarritako jardueren diseinua, garapena, jarraipena eta ebaluazioa kudeaketa publiko aurreratuko eredu baten arabera egin da.

ETE-etan prebentzioa txertatzea lortu beharreko helburua da oraindik, bai eta zenbait talderen behar zehatzei erantzutea ere, hala nola langile autonomoen beharrei, biztanle aktibo adindunei edo generoaren ikuspegiari, besteak beste. Oraindik ezkutuan dagoen lanbide-gaixotasunaren zein lan-egoera aldakorrak eragindako arrisku berriekin loturiko patologien tratamenduaren inguruko kezka dago.

Martxan jarritako ekintzen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleen artean lan-arriskuen prebentzioaren kultura handitzea.
- Errepidez egindako joan-etorrietan EAEn gertatzen diren lan-istripuen egoerari buruzko azterketa.
- Lan-istripu guztien ikerketa: hildakoekin, oso larriak, larriak eta biktima ugariarekin.
- Lan-istripuetan azpikontratazioak daukan eraginaren bilakaera.
- EAEko Prebentzio Zerbitzuen zein ikuskatutako erakunde espezializatuen osasun-ekintzen eta osasun-zerbitzuen fitxategia martxan jartzea.
- Eremu elektromagnetikoen eraginpean egotearen arriskuen azterketa.
- Lanarekin lotutako kalteen zaintza epidemiologikoa
- Lan-denborek eta txandek arrisku psikosozialetan daukaten eraginaren azterketa.
- Prebentzioko ordezkarien prestakuntzaren kudeaketa, hala oinarrikoa nola birziklatzekoa.
- Materiala prestatzea: makina jasotzaileak erabiltzeko jardunbide egokiak
- Enpresen, langileen, haien ordezkarien eta prebentzio-erakundeen laguntza teknikoko eskaeren arreta.
- Lan-arriskuen prebentzioaren arloko baldintza teknikoaren baldintza-agiri bat prestatzea.
- Enpresetako arrisku psikosozialen egoeraren gaineko ezagutzan sakontzea.
- Silizearen eraginpean dauden langileen egoerari aurre egiteko jarduerara integratzea.
- Errepideen mantentze-lanetan zein abeltzaintzan eta basogintzan prebentzioa sustatzea.

5.8. KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA

Lau izan dira 2015ean KONTSUMOBIDEREN kudeaketaren ardatzak:

- a) Informazioa. KONTSUMOBIDEREN helburu nagusietako bat zera da, kontsumitzaileei haien eskubideen berri ematea eta kontsumitzeko orduan eman daitezkeen arrisku-egoerei buruzko aholkuak ematea. Argitalpenen (monografikoak, liburuxkak, gidaliburuak eta bestelako materialak) eta sentsibilizazio-programen bidez kudeatzen da (dibulgazio-kanpainak irratian, prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak).
- b) Prestakuntza. 2.049 prestakuntza-tailer eskaini dira, hezitzaileentzako 5 jardunaldi teoriko-praktiko eta 33 prestakuntza-saio erakunde publikoetan. Guztira 25.464 pertsonak parte hartu dute.
- c) Gatazkak konpontzea.
 - Kontsumoaren inguruko 41.548 kontsulta erantzun dira Euskadin, horietako 8.899 zuzenean KONTSUMOBIDERI egindakoak.
 - Euskadin kontsumoaren inguruko 21.221 erreklamazio tramitatu dira (8.090 KONTSUMOBIDEN, 12.057 KIUB Udal Bulegoetan, eta 1.074 Kontsumitzaileen Elkartetan).
 - 108 zigor-espediente ireki ziren, bai jasotako erreklamazioen ondorioz zein programatutako ikuskapen-kanpainen harira.
- d) Merkatuaren kontrola.
 - Ikuskapen eta kontrol-kanpainak: zoru-klausulak maileguetan, elikagaiak aitorpen nutrizionalekin eta propietate osasuntsuekin, kontratua sinatu aurreko informazioa telefonian, iruzurrezko praktikak arrainaren eta eztien merkaturatzean, laktosarik gabeko esnea, EPI eskularruak, atzamarretako pintura...
 - Elikagaiak ez diren produktuen segurtasunaren kontrola
 - Ikuskatze-ekintzak. 2015ean 4.017 ekintza egin dira, horietako batzuk kanpainen ondorioz eta gehienak honako arrazoiengatik: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin koordinatutako ekintzak, produktu irregularren agerpena edota autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak eta inhibizioak.

5.9. EUSTAT - EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA

EUSTATEN 2015eko Urteko Estatistika Programaren laburpena:

- 204 eragiketa estatistiko planifikatu dira.

- Esleitutako aurrekontua 16,3 milioi eurokoa izan zen.
- EUSTATEK zuzenean bere gain hartu ditu 105 eragiketa, eta gainerakoak beste organismo batzuen bidez koordinatu dira; horien artean nabarmentzekoak dira Ingurumen eta Lurralde Politika saila, Garapen Ekonomikoa eta Lehiakortasuna, Enplegua eta Gizarte Politikak eta Osasun saila.
- Hona hemen eragiketa gehien eta aurrekontuaren ehuneko handiena erakarri duten gaiak:
 - Demografia eta ohitura sozialak: 23 eragiketa / % 14,7
 - Kontu ekonomikoak: 19 eragiketa / % 11,0
 - Estatistika-azpiegitura: 16 eragiketa / % 12,9
- Gizarte-ekonomiaren atalaren barruan, eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiken sailaren estatistika-unitate bereziaren koordinaziopean, 2012ko ekitaldiari dagozkion euskal gizarte-ekonomiaren emaitzen inguruko estatistika-serieak argitaratu ziren 2015eko maiatzean; eta 2015eko irailean, "Euskal Gizarte Ekonomiaren estatistika-etaulak (ECOSOC)" eta 2014ko uztailean argitaratutako "2012ko Gizarte Ekonomiaren estatistika-txostena eta 2013ko Aurrerapena" eguneratu ziren.

5.10. EUSKADIKO IMMIGRANTEEN INTEGRAZIO ETA PARTAIDETZARAKO FOROA

"Euskadiko herritar immigranteen integraziorako eta partaidetza sozialerako foroaren" osoko bilkuraren ardatz nagusia errefuxiatuen etorreraren ondorioz (batez ere Siriatik baina baita beste leku batzuetatik ere) Europan sortutako krisia izan zen.

Hona hemen 2015ean egindako lanak:

- Immigrazioaren inguruko Euskal Estrategia. Hainbat sare, programa eta ekimen jarri dira martxan. Programa guztiak aurreikusitakoaren arabera mantendu dira. Hala ere, Immigrazioaren inguruko Hitzarmen Soziala ezin izan da oraindik adostu.
- Beste batzorde batzuk: Berme Juridikoak, Lan-arloa, Osasuna, Parte-hartzea, Gizarte Baliabideak eta Etxebizitza eta Hezkuntza. Batzorde hauetan Administrazioaren sailak, Justizia, Etxebizitza, Emakunde, AFA eta BFAk ere esku hartzen dute.
- Errefuxiatuak. Bere gaur egungo egoeraren jarraipena egin zen: Ministerioarekin izan diren bilerak, erakunde instituzionalekin eduki beharreko koordinazioa (Aldundiak eta Eudel), legez proiektuaren buru izateko ardura duten erakundeak (CEAR eta Gurutze Gorria), baliabideak, EAera iritsiko den errefuxiatu kopuruaren eta dataren inguruan dagoen nahastea, gatazka horien jatorrian lan egiteak daukan garrantzia eta



horretarako baliabideak bideratu beharra. Egia esan, 6 hilabete geroago, gai honek ia hutsaren hurrengoa den eragina izan du EAEn, argi eta garbi haren eskumenetatik kanpo dauden arrazoiengatik, eta ia ezin izan da esku hartu Euskadira iritsi diren errefuxiatuen kasu errealetan.

- Foroa bera birdiseinatzeko beharrari buruzko hausnarketa, herrialdearen sare sozial eta instituzionalera lotuago egongo den eta arinagoa izango den zerbait sortzeko.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. WEBGUNEA: www.konfekoop.coop

Webguneak KONFEKOOPEN irudi korporatiboa indartu eta eguneratzeko balio du, eta euskal kooperatibismoaren ordezkari itzazko instituzionalaren irudi osoagoa bistaratzeko aukera eskaintzen die bisitariari.

Webgunea etengabe eguneratzen da, eta, horrez gain, KONFEKOOPEN kontseilarientzat eta Federazioentzat oso erabilgarria den gune pribatu bat dauka, informazioa eskuratzeko.

2015ean, 3.813 bisitari izan ditu, 4.734 saiotan 12.050 orrialde ikusi dituztenak.

6.2. FOROKOOP – KOOPERATIBA-EZTABAIDARAKO FOROA

Foroa sortu zenetik, ingurunearen egoera kooperatiboa aldatuz joan da, eta gure jarraitzaileengana iristeko moduak ere bilakaera oso azkarra izan du. Nazioartean sareko mundu kooperatiboko erreferente bihurtzea lortzen ari da FOROKOOP.

2015ean honako herrialde hauetatik jaso ditugu bisita gehien gure webgunean: Kanada, Frantzia eta Estatu Batuak. Nolanahi ere, bisiten % 50 espainiar estatutik heltzen da.

2015ean, FOROKOOPek Foroa eguneratzeko prozesu orokor bati ekin dio, eta bere irudia eta logoa aldatu ditu, eta baita Foro birtualarena ere. Webguneak 84.466 bisita izan ditu, eta egunean batez beste 231 sarrera erregistratu dira. Foroan 101 argitalpen egin dira: 42 bideo, 42 albiste eta 17 iritzi-artikulu. Sare sozialak izan dira webgunera heltzeko sarri erabili den bidea: 882 lagun ditu Facebooken, 853 jarraitzaile Twitterren, 9 harpide Youtuben eta profila Flickr-en. Horietan guztietan sustapen lan handia egiten da, eta foroa bizirik mantentzen da.

“XXI. mendeko desperekotasunak” izeneko aurrez aurreko jardunaldia Bilbon egin zen, urriaren 7an. Hiru eztabaidatan banatu zen jardunaldia, Euskadiko hiru unibertsitateetako Ikasketa Kooperatiboen Institutuen parte-hartzearekin, eta Errioxako unibertsitateko Mariola Urrearen hitzaldiak eman zion amaiera: “Lidergoa, eraldaketaren akuilu: desperekotasunaren aurkako eredu bat”. Honako hauek parte hartu zuten eztabaidetan: Sylvia Gay (GEZKI) eta Gabriel Fernandez de Barrena (MU) “Genero-desperekotasuna” eztabaidan; Ion Lezeta (LANKI) eta Paulo Ponce (UD) “Desperekotasuna kooperatiben kultura”; Massimo Cermelli (UD) eta Liseth Diaz (EHU) “Desperekotasun soziala” eztabaidan.

6.3. “KOOPERATIBA-ENPRESA” SAIOA ONDA VASCA - HERRI IRRATIAN

Irratia komunikabide egoki bat da kooperatiben eredia, bere lorpenak eta bere helburuak ezagutzera emateko, norbanakotik norbanakorako kalitate intimoa daukalako, eta, kooperatibismoarekiko sentimendu positiboak sortzeko gai den mezu baten bidez, kontsumitzailea erakartzeko aukera ematen duelako.

ONDA VASCAREN bidez, ostegun arratsaldero “Kooperatiba-enpresa” saioa eskaintzen du KONFEKOOPEK, eta irratsaio bakoitzean, euskal kooperatibismoaren inguruko albiste bat eskaintzen da: sortu diren kooperatiba berriak, kanpo ezarpenak, egindako inbertsioak, Kooperatiben federazioek martxan jarri dituzten programak, etab.

Gainera, KONFEKOOPEN iragarkiak ere eman dira, haren ordezkagarritasunaren zein eskaintzen dituen zerbitzuen ingurukoak.

6.4. BESTE HAINBAT HEDABIDE

KONFEKOOPEKO arduradunei hainbat elkarrizketa egin dizkiete hainbat hedabidetan, eta kooperatibismoarekin loturiko gaiei buruzko iritzi-artikuluak idatzi dituzte, hala hedabideek eskatuta nola ekimen propioz.

7. KOOPERATIBAK SUSTATZEKO PROGRAMAK

Atal honetan, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren kezka-iturri diren eta KONFEKOOPek jorratzen dituen beste esparru batzuk hartuko ditugu hizpide.

7.1. EGE – ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA

Ekitaldi honetan, esparru honetan jorratu den lanak honako ezaugarri hauek izan ditu:

- FOARSE – EGEAREN ARABA FOROAK bere diru-sarrerara mugatuen araberako jarduera garatu du, eta batez ere, EGEa zabaltzeko lan egitea izan da bere lanaren ardatza.

Irailean, EGEaren inguruko IX. Biltzarra egin zuen, “Enpersak, EGEa eta Komunikazioa: ekuazio oso errentagarria” izenburupean. Ordezkaritza instituzionala eta eztabaidak ez ziren falta izan.

- GEK GIPUZKOA FOROA bere kideen laguntzarekin aurrera eraman daitezkeen proiektu eta sinergia berriak aztertzen ari da.
- INNOBASQUEREN EGE I-TALDEAK, hastapenetik KONFEKOOPEN parte-hartzea izan duena, gaur egun ez dauka inolako jarduerarik.

7.2. JARDUERAK EUSKARAREN ESPARRUAN

Honako hauek izan dira Kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko KONFEKOOPek egin dituen lanak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren jarraipena egin du (LAN-HITZ programa), euskarak lan-munduan duen erabilera eta presentzia handitzeko.

BIKAIN hizkuntza-kudeaketako kalitate-ziurtagiriaren ebaluazio-sistemaren jarraipena egiten duten organoetan (Artezkaitza Kontseiluan eta “Kudeaketako Batzorde eragilean”) parte hartzen du KONFEKOOPek. BIKAIN SARIA jaso duten erakundeen lana aitortzeko abenduaren 21ean Bilboko Gasteizko Euskalduna Jauregian egin zen ekitaldira ere joan zen.

2015a ekitaldi bikaina izan da, 65 enpresak jaso baitute sari hau, iaz baino % 67 gehiagok. Horietatik lau enpresak oinarritzko mailako modalitatean jaso dute saria, hogeik maila ertainean eta beste berrogeita batek goi mailan; horien artean zortzi kooperatiba zeuden. 2007tik 261 erakundek lortu dute BIKAIN SARIA: 54 oinarritzko mailakoa, 106 maila ertainekoa eta 101 goi mailakoa.

Enpresa eta erakunde horien prestakuntza-saioetan 199 ebaluatzaile prestatu ziren, eta guztira 158 ebaluatzailek parte hartu zuten. Enpresa eta erakundeek ebaluazioetan erakutsi zuten gogobetetze-maila 10 puntutik 8,6koa izan zen.

Amaitzeko, aipatu beharra dago 2015aren amaieran, 550 ebaluatzaile zeudela BIKAIN Ebaluatzaileen Klubaren barruan.

- KONFEKOOP BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAREN “zuzendaritzako kidea” izan da, bazkide diren erakunde erabiltzaileen izenean.

1.321 dira orain arte BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA jaso duten enpresa, saltoki eta erakundeak, horrela banatuta: "bidean" motako ziurtagiriak 586, "zerbitzua euskaraz" ziurtagiriak 536 eta "zerbitzua eta lana" ziurtagiriak 203.

2015ean, beste 55 erakundek eskuratu dute ZIURTAGIRIAREN modalitatearen bat Euskal Herri osoan. Halaber, neurri handi batean egoera ekonomiko okerraren ondorioz, ziurtagiria eskuratu zuten erakundearen artean eman diren bajak 110 izan dira, gehienak merkataritza eta ostalaritzako sektorekoak.

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA lortu duten erakundearen lana aitortzeko ekainaren 26an Donostiako San Telmo Museoa egin zen ekitaldian ere parte hartu zuen KONFEKOOPek. Bertan, “Euskal Herria Esnea” elkartearen, “Nekatur” elkartearen eta Gaizka Garitano futbol-entrenatzailearen lanaren aitortza egin zen.

2015ean, azkenik, BIKAIN SARIETI eta BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIETI buruzko informazioa igorri zaie federatutako kooperatiba guztiei.

7.3. KNE - KOOPERATIBEN NAZIOARTEKO EGUNA

Uztailaren 4an, Euskal Kooperatiben Mugimenduak Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatu zuen. Kooperatiben Nazioarteko 93. Egun honen leloa “Aukeratu kooperatiba, aukeratu berdintasuna” izan zen.

Berdintasuna funtsezko balio bat da, eta hari esker, mundu guztiak bereganatu ditzake garapen ekonomiko eta sozialaren onurak. Oraindik, besteak beste, sexu, adin, erlijio edo baldintza sozioekonomikoengatik bereizkeria jasaten duten pertsonak daude. Hasierahasieratik, ekitatea izan da kooperatiben mugimenduaren ardatzetako bat. Kooperatibek berdintasuna sustatzen duen negozio-eredu demokratiko bat eskaintzen dute.

7.4. GEEB - GIZARTE EKONOMIAREN EUSKAL BEHATOKIA

GEEBa analisi eta birsortze-prozesu batean sartuta egon da 2015ean. KONFEKOOP Aholkularitza-batzordeko kidea da, eta batzordea ofizialki bildu ez bada ere, hainbat bilera izan ditu GEZKirekin GEEBaren eginkizunak azertu eta eztabaidatzeko.

Behatokiak egiten dituen informazio-buletinaren eta Euskadiko Gizarte Ekonomiaren kontuak jasotzen dituen urteko txostenaren balioa nabarmendu da.

GEEBak urriaren 15 eta 16an GEZKIn egin zen “Kooperatiben eredia gaur egungo erronken aurrean” izeneko Unibertsitate arteko I. Biltzar Kooperatiboan parte hartu zuen

7.5. INNOBASQUE

KONFEKOOPEK, INNOBASQUEko bazkide den heinean, zenbait i-Taldetan (lantaldetan) parte hartu du. 2015ean i-Talde horiek ez dute jarduerarik izan.

8. HITZARMENAK, LANKIDETZAK ETA BESTE GAI BATZUK

8.1. GARLAN, KOOP.E.

GARLAN KOOP.E.ko bazkideek Kooperatibaren Kreditu atalari eskatzen dizkieten maileguen azterketa-komisioa finantzatzeko KONFEKOOPEK GARLAN KOOP.E.rekin sinatutako lankidetzahitzarmena mantendu da.

8.2. ALECOPE, KOOP.E.

ALECOPEko eskolako bazkide laguntzaileek jasotako prestakuntza teorikoa indartzea eta osatzea da lankidetzahitzarmenaren xedea. Horretarako, KONFEKOOPEN barruko Euskadiko Kooperatiben federazio sektorialetako bazkide den edozein kooperatibatan, laneratzeko gaitasunak eta gaitasun profesionalak praktikan jarri ditzakete bazkide laguntzaile horiek. Hau da, prestakuntza akademikoa osatuko dute, jasotako prestakuntza teorikoaren osagarri izango diren praktika-aldien bidez.

Praktikek ohiko lanaldiaren % 50eko iraupena daukate, eta irakastorduetatik kanpo egiten dira. ALECOPEko eskolako bazkide laguntzailearen eta praktikak egiteko aukeratzen den Kooperatibaren artean ez da inolako lan-harremanik ezarriko.

8.3. EUSKALTEL

Federazio sektorialen barruan dauden kooperatiba guztiak EUSKALTELEkin sinatutako hitzarmenaren alta emanda daude, hitzartutako abantailak eskuratu ahal izateko. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.4. IMQ – IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO

KONFEKOOPEK IMQrekin sinatuta daukan hitzarmena eguneratu du, eta horri esker, federatutako kooperatibek deskontu garrantzitsuak eskuratu ditzakete osasun-asegurua kontratatzen dutenean. Hitzarmenaren baldintzak KONFEKOOPEN webgunean eskuratu daitezke.

8.5. PARTE-HARTZEA HAINBAT EKITALDITAN

Ekitaldi honetan, KONFEKOOPEK hainbat ekitaldi eta bileratan parte hartu du:

- Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailburua, urriaren 8an Lehendakaritzan.

- PSE-EEko Idoia Mendia, Iñaki Arriola eta Javier Lasarte, urtarrilaren 19an Arrasaten.
- EAJko Andoni Ortuzar eta Joseba Aurrekoetxea, urtarrilaren 29an Sabin Etxean.
- Arabako PSE-EEko Cristina Gonzalez, David Romero eta Julia Liberal, urtarrilaren 30ean Gasteizen.
- AFaren Enplegu Foroa, otsailaren 6an Gasteizen.
- PPko Arantza Quiroga, otsailaren 10ean Donostian.
- Forum Europa Helena Francorekin, otsailaren 11n Ercilla hotelean.
- EH Bilduko Fernando Barrena, Joseba Permach, Rufi Etxeberria eta Marisa Alejandro, otsailaren 12an Arrasaten.
- Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuaren aurkezpena, otsailaren 18an Eusko Jaurlaritzan.
- ERKIDE-Irakaskuntzaren XXV. urteurrena, martxoaren 4an Artiumen.
- GFAko Xabier Olano, Agurne Barruso eta Maider Otamendi, martxoaren 6an Donostian.
- 19. Korrikaren aurkezpena, martxoaren 13an Bilbon.
- FLSPren Lan-ekimen arduratsuaren sariak, martxoaren 16an Gasteizen.
- EGESen aurkezpena, martxoaren 25ean Bilboko Itsas Museoa.
- ENKFren XXVI. batzar nagusia, martxoaren 26an Arkautiko Nekazaritza Eskolan.
- Europako Pentsio Sistemen jardunaldia, apirilaren 17an Bilbon.
- Gaztenpresa, apirilaren 21ean Arrasaten.
- Elkargi enpresen XXVI. Topaketa, apirilaren 22an Donostian.
- ASLEren batzarra, apirilaren 24an Artiumen.
- Gipuzkoako Enpresa Foroa, apirilaren 28an Donostian.
- OINARRI EBSren batzar nagusia, maiatzaren 8an Artiumen.
- EKKFren batzar nagusia, maiatzaren 26an Gasteizen.
- ERKIDEn batzar nagusia, maiatzaren 27an Miñaon.
- KONFEKOOPEN batzar nagusia, maiatzaren 29an Miñaon.
- FOARSEren IX. Jardunaldia, ekainaren 1ean Europa Jauregian.
- GEZKiko Aitor Bengoetxea eta Enekoitz Etxezarreta, uztailaren 21ean Donostian.
- Work-Lan proiektuaren sariak, ekainaren 11n Bilbon.
- Mondragon Unibertsitatearen 2015-2016 ikasturtearen aurkezpena, irailaren 17an Oñatin.
- JM Arizmendiarrietaren liburuaren aurkezpena, irailaren 23an BBFn
- FAECTAko Isabel Soto eta beste 8 pertsona, urriaren 1ean Innobasquen.
- Bisita Hobeia Koop.E.ra, urriaren 3an Larrabetzun.
- FOROKOOPEN IX. Jardunaldia, urriaren 7an Carlton hotelean.
- EMPLESS proiektua, urriaren 8an ANELen.

- Eroskiren inaugurazioa Gureak-ekin, urriaren 14an Azpeitian.
- Euskal Kooperatiben Unibertsitate arteko I. Biltzarra, urriaren 15 eta 16an GEZKIn.
- ENKFko Pablo Durana, urriaren 27an Bilbon.
- Indiako emakume ekintzaileen afaria Innobasquerekin, urriaren 30ean Bilbon.
- B+i-ren X. urteurrena, azaroaren 10ean Euskaldunan.
- Nafarroako Gizarte Ekonomiaren Eguna Nafarroako CEPESekin, urriaren 11n Barañainen.
- Gure Balioak saria Antonio Cancelori, azaroaren 12an Eibarren.
- Europa Foruma Alfonso Alonsorekin, azaroaren 16an Ercilla hotelean.
- EGESen gosari informatiboa, azaroaren 16an BBFn.
- Lankidetzaren foroa Gasteizko udaleko enpresa eta elkarte industrialekin, azaroaren 19an Europa Jauregian.
- Inkubagailu soziala zehazteko jardunaldiak, azaroaren 23 eta 24an GEZKIn.
- Lan-sozietateen lege berriaren aurkezpena, abenduaren 2an Euskaldunan.
- Mondragoneko Mikel Lezamiz eta Ander Etxeberria, abenduaren 14an Otaloran.
- EGKFko Gonzalo Saez de Ibarra, abenduaren 22an Gasteizen.
- Gizarte zibilarentzako harrera, abenduaren 23an Lehendakaritzan.

8.6. LANKIDETZA MUNDUKIDEREKIN

KONFEKOOPEK laguntza eta babesa eskaintzen dio MUNDUKIDE Fundazioari, hirugarren munduko herrialde esaten zaien horietan kooperatibismoa sustatzeko ekintzak egin ditzan.

Horretarako, bere urteko emaitzen % 1ari dagokion laguntza ematen dio.

MUNDUKIDEK Kooperatiben Nazioarteko Egunean antolatu zuen I. Lasterketa Solidarioa ezagutzera emateko lanetan parte hartu zuen KONFEKOOPEK. Kooperatibisten bihotz taupaden oihartzuna hegoaldeko herrialdeetara helaraztea zen lasterketaren helburua. 7 kilometroko ibilbidea izan zuen eta 28 taldek parte hartu zuten.



KONFEKOOP



KONFEKOOP

IKUSKATUTAKO KONTUAK

BALANTZE LABURRA

AKTIBO EZ-ARRUNTA	762.242,57
Ibilgetu ukiezina	0,00
Ibilgetu materiala	296.546,99
Bazkidetutako eta Taldeko enpresetan epe luzera egindako inbertsioak	275.299,40
Epe luzerako finantza-inbertsioak	190.396,18
AKTIBO ARRUNTA	1.743.107,17
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	276.991,01
Zerbitzu eskaintzagatiko bezeroak	20.014,91
Beste hainbat zordun	45.920,37
Diru-laguntzengatiko beste zordun batzuk	211.055,73
Epe motzeko finantza-inbertsioak	1.348.530,00
Eskudirua eta antzeko beste aktibo likidoak	117.586,16
AKTIBOA GUZTIRA	2.505.349,74

ONDARE GARBIA	2.005.793,18
Fondo propioak	1.996.396,45
Erreserbak	1.932.901,17
Ekitaldiko emaitza	63.495,28
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak	9.396,73
PASIBO EZ-ARRUNTA	314.682,31
Kooperatiben Azkentzeen Ezarpen Fundoa	131.189,18
Epe luzeko zorrak FAECengatik	183.493,13
PASIBO ARRUNTA	184.874,25
Epe motzeko zorrak FAECengatik	48.530,00
Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	136.344,25
Hornitzaileak	12.289,40
Hornitzaileak, bazkidetutako eta taldeko enpresak	97.822,99
Beste hainbat hartzekodun	21.514,61
Beste zor batzuk Administrazio publikoekin	4.717,25
PASIBOA GUZTIRA	2.505.349,74

IRABAZIEN ETA GALEREN KONTU LABURRA

USTIAPENAREN EMAITZA	55.533,82
Negozio-kopuruaren zenbateko garbia	139.025,97
Jarduera propioen diru-sarrerak	85.039,41
Zerbitzuen eskaintza	53.986,56
Jarduera propioen egozpenak	-64,40
Egozpenen diru-sarrerak	116.256,30
Egotzi beharreko gastuak	-116.320,70
Kontsumoak	-4.628,35
Ustiapenaren beste diru-sarrera batzuk	181.851,17
Ustiapenaren diru-laguntzak	141.874,17
Programa berezien diru-laguntzak	39.977,00
Langile-gastuak	-73.691,85
Ustiapenaren beste gastu batzuk	-164.546,59
Kanpoko zerbitzuak	-14.865,60
Zerga-ordainak	-247,95
Dedikazioa	-72.051,87
Ordezkaritza	-4.454,91
Afiliazio kuotak	-6.940,00
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-37.439,81
Programa berezien beste gastu batzuk	-28.546,45
Ibilgetuaren amortizazioa	-22.412,13
Ibilgetu ukiezina	0,00
Ibilgetu materiala	-22.412,13
Finantza ibilgetuaren eta beste batzuen diru-laguntzen egozpena	0,00
Egotzi beharreko diru-laguntzen diru-sarrera	354.905,83
Egotzi beharreko diru-laguntzen gastua	-354.905,83
Beste emaitza batzuk	0,00
FINANTZA-EMAITZA	7.961,46
Diru-sarrera finantzarioak	15.573,67
Finantza-gastuak	0,00
Kaltea eta emaitza finantza-tresnen besterentzeengatik	-7.612,21
ZERGEN AURRETIKO EMAITZA	63.495,28
Etekinaren gaineko zerga	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	63.495,28